


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2012ko OTSAILA

Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 igo ziren 2012ko otsailean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2012ko otsaila, 2011koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek %1,1eko gehikuntza izan dute.

2012ko otsailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %1,1 igo zen, EUSTATen datuen arabera.

Abenduako urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2012



(*) Gehikuntza otsailako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2012ko otsailean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,4 igo dira.

Otsailean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek igoerak izan dituzte lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,3koa aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,7ko igoera. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,6 igo ziren; Obra zibilekoak %2,9.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Petrolio-fintzea (%15,8), Energia elektrikoa eta gasa (%13,5) eta Industria kimikoa (%6,0) nabarmentzen dira. Berriz, urteko prezioetan (2012ko otsaila 2011koaren aldean) jaitsierak edo igoera txikiagoak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Metalurgia (%-1,7), Erauzketa industriak (%-0,7), Mineral ez-metalezkoen beste produktuen fabrikazioa (%-0,4) eta Altzarigintza eta beste manufaktura-industriak (%-0,2).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO OTSAILA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA	ALDEAREN %		
	2005 = 100 Oinarria	Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	121,2	0,3	1,1	0,6
ERAIKINAK	119,9	0,2	0,7	0,4
OBRA ZIBILA	126,1	0,5	2,4	1,3
LEHENGAIEN KOSTUA	120,5	0,4	1,1	0,5
ERAIKINAK	118,9	0,3	0,6	0,2
OBRA ZIBILA	126,8	0,7	2,9	1,4
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	1,0	1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.